Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko irailaren 3a, ostirala — 169 — Viernes, a 3 de septiembre de 2021



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Ingurumen txosten estrategikoa, Bidania-Goiatzeko 4.2 «Kalegoena» azpieremuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziari buruzkoa.*

1. *Aurrekariak.*

Bidania-Goiatzeko Udalak, 2021eko ekainaren 17an, formalizatu zuen guztiz Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari egindako eskaera, 4.2 «Kalegoena» azpieremuaren hiri antolamenduko plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategikoa izapidetzen hasteko. Horretarako, Udalak eskaerarekin batera bidali ditu plan bereziaren zirriborroari dagokion dokumentazioa, ingurumen dokumentu estrategikoa (IDE) eta planaren azterketa akustikoa.

Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.2.c artikuluan aurreikusitako kasuen barruan sartzen da plan berezia, eta, beraz, ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua egin behar zaio.

Beraz, prozedura horren esparruan, eta eragindako administrazio, pertsona eta erakundeei abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 30. artikuluan xedatutako kontsulten izapidea egin ondoren, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari dagokio ingurumen txosten estrategikoa egitea. Horrela, Legearen V. eranskinean ezarritako irizpideekin bat etorriz eta egindako kontsulten emaitza ikusita, txosten horretan zehazten da plan bereziak eragin adierazgarririk izan dezakeen ingurumenaren gainean, eta, beraz, ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaiola, edo, bestela, eragin adierazgarririk ez duela ingurumen txosten estrategikoak ezarritako terminoetan.

2. *Plan bereziaren helburuak eta proposatutako antolaketa.*

4.2. «Kalegoena» azpieremuaren hiri antolamenduko plan bereziaren xedea da unean-unean egokitzea Bidania-Goiatzeko 2014ko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak (HAPO) azpieremu horretarako ezartzen duen antolamendu xehatua.

HAPOak Kalegoena azpieremua hartzen du «4. Bidania» hiri eremuaren barruan. Azpieremua udalerriko hirigunearen erdialdean dago, Tolosa-Azpeitia errepidearen eta frontoiaren ondoan. Azpieremuaren azalera osoa 2.199,86 m² da, eta bertan bi eraikin nagusi daude (bata etxebizitzena eta bestea biltegia), biak hutsik eta baldintza txarretan (biltegiko lehen solairua izan ezik, bertan funtzionamenduan dagoen elkarte gastronomiko bat baitago). Beste bi eraikin txiki ere badaude (hegoaldean eta mendebaldean), biak erabileran eta kontserbazio egoera onean, eta azpieremutik kanpo dauden bi eraikini erantsita daude. HAPOak antolamenduz kanpokotzat jotzen ditu eraikinak, eta azpieremuaren hiri biziberritzeatzea aurreikusten du. Horretarako, eraikinak kendu eta horien ordez bizitegi izaera izango duen beste bat egin nahi da, 15-17 etxebizitza (3 goiko solairu eta atikoa –11,5+3 metroko altuera–) eta eraikineko sotoetan aparkaleku plazak izango lituzkeena; halaber, zuzkidura publiko berrien antolamen-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

*Informe ambiental estratégico del Plan Especial de Ordenación Urbana del subámbito 4.2 «Kalegoena» en Bidania-Goiatz.*

1. *Antecedentes.*

El 17 de junio de 2021 el Ayuntamiento de Bidania-Goiatz ha formalizado de forma completa su solicitud a la Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa referente al inicio de la tramitación de la evaluación ambiental estratégica del plan especial de ordenación urbana del subámbito 4.2 «Kalegoena». A estos efectos, junto con la solicitud, el Ayuntamiento ha remitido la documentación correspondiente al borrador del plan especial, el documento ambiental estratégico (DAE) y el estudio acústico del plan.

El plan especial se encuentra dentro de los supuestos previstos en el artículo 6.2.c de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, por lo que debe ser objeto de una evaluación ambiental estratégica simplificada.

Por tanto, en el marco de ese procedimiento, y tras la realización del trámite de consultas a las administraciones, personas e instituciones afectadas dispuesto en el artículo 30 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, corresponde a la Dirección General de Medio Ambiente emitir el informe ambiental estratégico, en el que, de conformidad con los criterios establecidos en el anexo V de la Ley y a la vista del resultado de las consultas realizadas, se determina si el plan especial puede producir efectos significativos sobre el medio ambiente, y, por tanto, debe someterse al procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria, o no los tiene en los términos que establezca el informe ambiental estratégico.

2. *Objetivos y ordenación propuestas en el plan especial.*

El plan especial de ordenación urbana del subámbito 4.2 «Kalegoena» tiene por objeto reajustar puntualmente la ordenación pormenorizada que establece el Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) de Bidania-Goiatz de 2014 para dicho subámbito.

El PGOU, dentro del ámbito de carácter urbano «4. Bidania», integra el subámbito de Kalegoena que se sitúa en la parte central del casco urbano del municipio junto a la carretera Tolosa-Azpeitia y el frontón. La superficie total del subámbito es de 2.199,86 m², y en él se localizan dos edificios principales (uno de vivienda y otro de almacén) que están vacíos y en condiciones precarias (a excepción de la planta primera del almacén que alberga una sociedad gastronómica en funcionamiento) y otras dos pequeñas edificaciones (en el sur y oeste) en uso y buen estado de conservación, anexas a 2 edificios situados fuera del subámbito. El PGOU declara fuera de ordenación las edificaciones y prevé la regeneración urbana del subámbito mediante la eliminación y sustitución de las ediciones por una nueva de carácter residencial que albergaría entre 15 y 17 viviendas (3 plantas altas y ático –11,5+3 m de altura–) y plazas de aparcamiento en los sótanos del edificio, complementada

EK\CV GAO-I-2021-05701

duarekin (batez ere espazio libreak eta hirugarren sektoreko merkataritza-erabileren zuzkidura) eta haien berrurbanizazioarekin osatuko litzateke. Helburu horiek lortu eta gauzatzeak justifikatzen du indarrean dagoen hirigintzako araubideko zenbait aurreikuspen arautzaile aldatzea eta, horretarako, plan berezia egitea.

Plan bereziaren hirigintzako eta ingurumeneko dokumentazioak hiru aukera aztertzen ditu. «Zero» aukera (egungo egoera mantentzea) baztertu egiten da, azpieremuak duen hirigintza eta ingurumen integrazio baxuko egoera mantendu beharko litzatekeelako. Lehen aukera bat dator indarrean dagoen HAPOan ezarritako antolamenduarekin eta proposamenekin, baina Udalak plana epe laburrera kudeatzea eta egikaritzea nahi du, eta hori zailtzen duten baldintzak ditu. Aurrekoa kontuan hartuta, bigarren aukeraren alde egin da. Izan ere, bi eraikin txikien eraispena saihestuta, nabarmen hobetzen dira azpiegituraren Kudeaketa baldintzak, eta ez dira batere aldatzen HAPOaren helburuak, hau da, inguruaren hiri biziberritzea, lehendik zeuden eraikin nagusiak ordezkatuz, eta egin beharreko eraberritze eta berrurbanizazio lanak eginez, betiere azpieremua eta Bidaniako hirigunea hobetzeko asmoz, fisikoki eta ingurumenari dagokionez.

Horrela, plan berezian proposatzen da indarrean dagoen antolamenduari honako doikuntza hauek egitea:

— Hegoaldeko eta mendebaldeko adarretan dauden bi eraikuntza osagarri txikiak finkatzea (46,17 eta 107,73 m²) eta lehendik dauden eraikin nagusiak eraistea. Horrela, azpieremuaren erdigunean (errepidetik urrunduta) kokatu ahal izango da bizitegi eraikin berri eta bakarra (15-17 etxebizitza –5 edo 6 babestuak–), 936,44 m²-ko lurzati batean. Eraginpeko lursailak hiri lurzoru finkatugabe gisa kategorizatzen jarraituko da, eraikigarritasuna handitu delako. Aipatutako bi eraikin txikiei loturikoak, ordea, finkatu eta hiri lurzoru finkatu gisa kategorizatutako dira.

— Zuzkidurak: Hirugarren sektoreko erabileretarako (merkataritzakoak...) aurreikusitako zuzkidura eta antolamendua 500 m²(t)-tan mantentzea, espazio libreak antolatzeko proposamenak handitzea (1.054 m² inguruko azalera guztira) eta 209 m² inguru bideetara bideratzea.

*3. Kontsulta, gaiak eragiten dien administrazioei, pertsona interesdunei eta jendeari oro har.*

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta plan bereziaren eta eragindako lurralde eremuaren ezaugarrietan oinarrituta, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak interesduntzat identifikatu ditu eta kontsulta egin die honako administrazio eta erakunde hauei, zeinei organo sustatzaileak egindako dokumentazioa bidali baitzitzaien:

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza.

— Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.

con la ordenación de nuevas dotaciones públicas (fundamentalmente espacios libres y dotación de usos terciarios comerciales) y su reurbanización. La consecución y materialización de esos objetivos justifica la modificación de determinadas previsiones reguladoras del vigente régimen urbanístico y la formulación, para ello, del plan especial.

La documentación urbanística y ambiental del plan especial analiza 3 alternativas. La alternativa «cero» (permanencia de la situación actual) se descarta porque implicaría el mantenimiento del estado de baja integración urbanística y ambiental que presenta el subámbito. La alternativa 1 se corresponde con la ordenación y propuestas establecidas en el vigente PGOU pero presenta condiciones que dificultan su gestión y ejecución a corto plazo como pretende el Ayuntamiento. Considerando lo anterior, se opta por la alternativa 2, al considerar que, evitando los derribos señalados para las dos pequeñas edificaciones, se mejoran sustancialmente las condiciones de gestión del subámbito, manteniéndose sin menoscabo alguno los objetivos del PGOU, que consistían en la regeneración urbana del entorno mediante la sustitución de las edificaciones principales existentes y la reforma y reurbanización correspondientes buscando la mejora física y ambiental del propio subámbito y del núcleo urbano de Bidania.

De esta forma, los principales ajustes propuestos en el plan especial respecto a la ordenación vigente son los siguientes:

— Consolidar las dos pequeñas construcciones auxiliares situadas en los apéndices sur y oeste (46,17 y 107,73 m²) y derribar las edificaciones principales existentes, permitiendo ubicar en posición central respecto al subámbito (alejándolo de la carretera) la nueva y única edificación residencial (15-17 viviendas –5 o 6 protegidas–) en una parcela de 936,44 m². Se mantiene la categorización de los terrenos afectados como suelo urbano no consolidado por incremento de edificabilidad, salvo los vinculados a las dos citadas pequeñas edificaciones que se consolidan y que se categorizan como suelo urbano consolidado.

— Dotaciones: Mantenimiento de la dotación y ordenación previstas para los usos terciarios (comerciales...) en 500 m²(t), aumento de las propuestas de ordenación de espacios libres (con una superficie total de unos 1.054 m²) y la consideración de unos 209 m² destinados a viario.

*3. Consulta a administraciones afectadas, personas interesadas y público en general.*

De acuerdo con lo dispuesto en artículo 30 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, y basándose en las características del plan especial y del ámbito territorial afectado, esta Dirección General de Medio Ambiente ha identificado como interesadas y ha consultado a las siguientes administraciones y organizaciones, a las que remitió la documentación elaborada por el órgano promotor:

— Dirección de Cultura de la DFG.

— Dirección General de Agricultura y Equilibrio Territorial de la DFG.

— Dirección de Montes y Medio Natural de la DFG.

— Dirección de Ordenación del Territorio de la DFG.

— Dirección de Movilidad y Transporte Público de la DFG.

— Dirección de Gestión y Planificación de la DFG.

— Dirección de Obras Hidráulicas de la DFG.

— Dirección de Carreteras de la DFG.

— Dirección de Planificación Territorial y Urbanismo del Gobierno Vasco.

— Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

EK\CV GAO-I-2021-05701

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Energia, Meategien eta Industria Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.

— IHOBE (Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa).

— URA (Uraren Euskal Agentzia).

— EEE (Energiaren Euskal Erakundea).

— Gipuzkoako Uren Kontsortzioa.

— Kantaurikoko Ur Konfederazioa.

— Tolomendi (Tolosaldeko Landa Garapen Elkartea).

— Tolosaldea Garatzen (Tolosaldeko Garapen Agentzia).

— EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).

— ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Eguzki Talde Ekologista.

— Ekologistak Martxan.

— Landarlan Ingurumen Elkartea.

— Haritzalde Naturzaleen Elkartea.

— Itsas Enara Ornitologia Elkartea.

Halaber, dokumentazio oro eskuragarri egon da Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren Interneteko www.gipuzkoaingurumena.eus atarian, jendeak oro har eta beste edozein interesdunek egokitzat jotako ingurumen arloko ekarpenak egin zitzaten.

Epea amaituta, eta txosten hau igorri zen egunera arte, erantzun eta ekarpen hauek jaso dira:

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak adierazi du ez dela beharrezkoa horri buruzko txostenik egitea.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du plan bereziaren eremuan ez dela eraginik antzeman Kultura Ondarean.

— Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak jakinarazi duenez, Bidania-Goiatz udalerria V-VI intentsitateko eremuan dago, Larrialdi Planaren arabera, eta, beraz, udalerria salbuetsita dago larrialdi sismikoko plan bat egitetik. Hala ere, kontuan hartu beharko da 997/2002 Errege Dekretuak onartutako seismoen aurkako eraikuntza araua. Salgai arriskutsuen garraioari lotutako arriskuei dagokienez, GI-2634 errepideak, azpieremuaren mugakide denak, kartografiatutako oso arrisku txikia du, baina bi gauza hartu behar dira kontuan. Alde batetik, errepidearen alde bakoitzean 600 metroko distantzia paraleloa egon behar da; hori izango da, istripu bat gertatuz gero, egoera txarretan esku hartzeko zona. Bestalde, komunikazio bideen aldaketetan kontuan hartu behar dira larrialdietako ibilgailuen joan-etorria errazteko ekimenak, istripurik izanez gero. Era berean, eremu horretako prezipitazio isomaximoak 225 eta 275 mm/egun bitartekoak dira 500 urteko errepikatze denboran, eta, beraz, drainatze obra posible guztiak diseinatzeko, kontuan hartuko dira dagozkien errepikatze emariekin lotutako prezipitazio horiek.

— Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático del Gobierno Vasco.

— Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco.

— Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco.

— Dirección de Infraestructuras de Transporte del Gobierno Vasco.

— Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.

— Dirección de Energía, Minas e Industria del Gobierno Vasco.

— Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

— IHOBE (Sociedad Pública de Gestión Ambiental).

— URA (Agencia Vasca del Agua).

— EVE (Ente Vasco de la Energía).

— Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

— Confederación Hidrográfica del Cantábrico.

— Tolomendi (Tolosaldeko Landa Garapen Elkartea).

— Tolosaldea Garatzen (Tolosaldeko Garapen Agentzia).

— EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).

— ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Grupo Ecologista Eguzki.

— Ekologistak Martxan.

— Landarlan Ingurumen Elkartea.

— Haritzalde Naturzaleen Elkartea.

— Itsas Enara Ornitologia Elkartea.

Asimismo, la documentación ha estado accesible en el portal de Internet de la Dirección General de Medio Ambiente, www.gipuzkoaingurumena.eus para que el público en general y cualquier interesado pudiera realizar las aportaciones de carácter ambiental que considerase oportunas.

Finalizado el plazo y hasta la fecha de emisión de este informe, se han recibido las siguientes respuestas:

— La Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco señala que no se considera necesario emitir informe al respecto.

— La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco comunica que en el ámbito del plan especial no se aprecian afecciones en el Patrimonio Cultural.

— La Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco informa que el municipio de Bidania-Goiatz se sitúa en la zona de intensidad V-VI según el Plan de Emergencias ante este riesgo con lo cual el municipio está exento de realizar un plan de emergencia sísmico. No obstante, se deberá tener en cuenta la norma de construcción sismorresistente aprobada por el R.D. 997/2002. Respecto a los riesgos asociados al transporte de mercancías peligrosas, indica que la carretera GI-2634, colindante con el subámbito, presenta al respecto un riesgo cartografiado muy bajo, pero que se debe de considerar una línea paralela a las vías de 600 m a cada lado que sería la zona a intervenir en caso de accidente en condiciones adversas, y que en las modificaciones de las vías de comunicaciones estén presentes iniciativas a facilitar el tránsito de vehículos de emergencia en caso de accidente. Asimismo, señala que las isomáximas de precipitación en la zona son de entre 225 a 275 mm/día para un periodo de retorno de 500 años, lo que implica que para el diseño de todas las posibles obras de drenaje que sean necesarias se tendrán en cuenta estas precipitaciones correlacionadas a los oportunos caudales de retorno.

— Uraren Euskal Agentziak (URA) jakinarazi duenez, barrutiaren Kudeaketaren batasun eta uniformetasun printzipioari jarraikiz, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari helarazi zaio kontsulta, jakinaraztea komeni dela baderitzo. Bestalde, jakinarazi du azpieremua Goiatz eta Ernio erreken zaintza eremuan dagoela, eta, beraz, arroko erakundearen nahitaezko baimena beharko duela jabari publiko hidraulikoari eragiten dion edo haren babes eremuetan kokatzen den jarduketa orok. Era berean, adierazi du eremuak ez duela uholde arriskurik, eta, hornidurari dagokionez, HAPOan aurreikusitakoaren garapen bat denez, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak aldeko irizpena eman du. Saneamenduari dagokionez, plan bereziak berariaz jaso behar du isuriak eta gaur egun eraikitzen ari den saneamendu eta arazte konponbidea lotzeko baldintza. Gainera, azpieremu horretan aurreikusitako bizitegi garapena aurreikusitako hondakin uren araztegia (HUA) abian jartzearen mende dago.

Jasotako erantzun eta ekarpenen artetik, plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren edukietan eta helburuetan eragina duten alderdiak aztertu egin dira eta kontuan hartu dira ingurumen txosten estrategiko honen atal desberdinetan.

Era berean, jasotako erantzunak eta ingurumen txosten estrategiko hau egin ondoren iristen direnak Bidania-Goiatzeko Udalari bidaliko zaizkio, kontuan har daitezen plan berezia lantzeko zereginetan eta izapidetzean.

*4. Ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen V. eranskinean jasotzen diren irizpideen araberako azterketa.*

Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 13ko 21/2013 Legearen 31. artikuluak adierazten duenez, ingurumen organoak ebatziko du ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua behar duten planek ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar duten ala ez, lege horren V. eranskinean zehaztutako irizpideak aplikatuta. Irizpide horiek planaren ezaugarrietan, eraginetan eta eragina jasan lezakeen eremuan oinarritzen dira.

Ingurumen txosten estrategiko honen 2. atalean deskribatzen den bezala, plan bereziaren xedea da unean-unean aldatzea Bidania-Goiatzeko HAPOan ezarritako antolamendu xehatua eta gauzatze araubidea, hiri lurzoruaren azpieremu txiki baterako, haren parametro batzuk doituz.

Azpieremuak orografia nahiko laua du, eta gehienez ere 1,80 metroko kota-aldea du 42 metroko distantzian. Hiriguneko eremu urbanizatuen eta bizitegi eraikinen mugakidea da erabat. Beraz, haren azalera osoa urbanizatuta dago, eta bertan daude hainbat eraikin (horietako batzuk egoera prekarioan), aparkaleku gune bat, tokiko eta tokiarteko bide bat (GI-2634) eta orube abandonatuak eta erabilera zehatzik gabeak. Azken horiek ez dute landare formazio aipagarririk edo interesgarririk, eta mugatuta daude landaredi erruderal-nitrofiloa duten eremu interstizial txikietara, hondatutako lursailei lotutakoetara eta lorategi gune batera.

Hala, plan bereziak eragiten dio indarrean dagoen udal-plangintzan sailkapen hau duen lurzoruari: «hiri lurzoru finkatugabea, urbanizaziorik ez duelako edo urbanizazio nahikorik ez duelako»; halaber, baldintza prekarioetan dauden higiezinen ordez bizitegi eraikin bakarra jartzea aurreikusten du, guztira 15/17 etxebizitzarekin. Finkatutzat hartzen ditu azpieremuaren barruan dauden baina handik kanpo dauden beste bi bizitegi eraikinen osagarri diren bi eraikin txikiak. Era berean, jarraipena eman nahi die HAPOaren aurreikuspenei, eraikin berriaren beheko solairuan kokatu beharreko hirugarren sektoreko erabilerei (merkataritzakoei) buruzkoei. Hala ere, hasieran aurreikusitako espazio libreen azalera handitzea proposatzen du, baita HAPOan aurreiku-

— La Agencia Vasca del Agua (URA) comunica que, en virtud del principio de unidad y uniformidad en la gestión de la Demarcación, la consulta ha sido trasladada a la Confederación Hidrográfica del Cantábrico por si estima conveniente informar. Por su parte, informa que el subámbito se sitúa en zona de policía de los arroyos Goiatz y Ernio por lo que toda actuación que afecte al dominio público hidráulico o se sitúe en sus zonas de protección requerirá de la preceptiva autorización del organismo de cuenca. Asimismo, indica que el área está exenta de riesgo de inundación, y que, en relación con el abastecimiento, al tratarse de un desarrollo de lo previsto en el PGOU cuenta con pronunciamiento favorable de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico. Respecto al saneamiento, informa que el plan especial debe de recoger expresamente la condición de conexión de los vertidos a la futura solución de saneamiento y depuración que se está actualmente construyendo y que el desarrollo residencial contemplado en el subámbito estará supeditado a la puesta en marcha de la futura EDAR.

Aquellos aspectos señalados por las respuestas y aportaciones recibidas que inciden en los contenidos y objetivos propios del procedimiento de evaluación ambiental estratégica del plan especial se han analizado y tenido en cuenta en los distintos apartados de este informe ambiental estratégico.

Asimismo, todas las respuestas recibidas y las que lleguen de forma posterior a la emisión de este informe ambiental estratégico, serán remitidas al Ayuntamiento de Bidania-Goiatz a fin de que, en su caso, sean tenidas en cuenta en la elaboración y tramitación del plan especial.

*4. Análisis en base a los criterios recogidos en el anexo V de la Ley 21/2013, de evaluación ambiental.*

Según señala el artículo 31 de la Ley 21/2013 de 13 de diciembre, de evaluación ambiental, el órgano ambiental resolverá el sometimiento o no de los planes sujetos a evaluación ambiental estratégica simplificada a un procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria, aplicando los criterios determinados en el anexo V de dicha Ley, criterios que se basan en las características del plan, de los efectos y del área probablemente afectada.

Tal y como se describe en el apartado 2 de este informe ambiental estratégico, el plan especial tiene por objeto modificar puntualmente la ordenación pormenorizada y el régimen de ejecución establecido en el PGOU de Bidania-Goiatz para un reducido subámbito de suelo urbano, ajustando algunos de sus parámetros.

El subámbito presenta una orografía sensiblemente llana con una diferencia máxima de cota de 1,80 m en una distancia de 42 m, y es colindante totalmente con las áreas urbanizadas y edificaciones residenciales de núcleo urbano, por lo que la totalidad de su superficie se encuentra urbanizada con presencia de varios edificios (algunos de ellos en situación precaria), una zona de aparcamiento, viario local e interlocal (GI-2634), y solares abandonados y sin usos definidos, y en el que no hay presencia de formaciones vegetales reseñables o de interés, circunscribiéndose la misma a pequeñas zonas intersticiales de vegetación ruderal-nitrófila asociada a terrenos alterados y alguna zona ajardinada.

Así, el plan especial afecta a suelo clasificado en el planeamiento municipal vigente como «Urbano no consolidado por carencia y/o insuficiencia de urbanización» y contempla la sustitución de los inmuebles que se encuentran en condiciones precarias por una única edificación residencial con un total de 15/17 viviendas, manteniendo como consolidadas las dos pequeñas edificaciones que se encuentran dentro del subámbito pero que son auxiliares de otros dos edificios residenciales situados fuera de él. Igualmente, pretende dar continuidad a las previsiones del PGOU referentes a los usos terciarios (comerciales) a situar en la planta baja del nuevo edificio, proponiendo, no obstante, un aumento de la superficie de espacios libres inicial-

si gabeko tokiko bide berri bat ere (45 bat metro luze), Agerre Azpi kalea eta GI-2634 errepidea lotzeko.

Azpieremuan ez dago ur ibilgurik, baina Goiatz errekatik 50 metro ingurura dago, Erniotik 70 metrora gutxi gorabehera. Beraz, jabari publiko hidraulikoari eragiten dion edo hari lotutako babes eremuetan (zortasun eta babes eremuetan) dagoen jarduera orok administrazioaren baimena beharko du nahitaez. Gainerakoan, plan bereziaren eraginpeko eremuak ez du ezaugarri natural garrantzitsurik, eta ez dator bat Natura 2000 Sareko edo EAEko Gune Babestuen Sareko espazioekin, ez eta EAEko Azpiegitura Berdearen Sareko egiturazko ezein elementurekin edo lurralde mailako etorkizuneko Azpiegitura Berdearen Sarearen parte izan litekeen ezein elementurekin ere. Halaber, ez da ikusi, ez eta aipatu ere, inguru horretan Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan sartutako katalogatutako edo mehatxatutako animalia espezierik dagoenik, ezta ere onartutako Kudeaketa plana duten animalia espezierik. Era berean, azpieremuak ez du nekazaritzari lotutako baliabide edo jarduera nabarmenik, ez eta ondare edo kultura ondasun babesturik ere.

Proposatutako erabilera mugatzen duten arriskuei edo faktoreei dagokienez, ur ibilgu iraunkorrik ez dagoenez, ez dago uholde arriskurik, eta arrisku sismikoa, akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasunari begira, oso txikia da, azpieremuaren kokagunea dela eta. Era berean, ez da aipatu kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak izan dituen edo dituen lurzorurik, eta txikitzat jo dira salgai arriskutsuak errepideetatik garraiatzeari lotutako arriskuak.

Zaratari dagokionez, egindako azterketa akustikoaren arabera, egunez eta arratsaldez betetzen dira eremuko eraikinen fatxadako zarataren kalitate akustikoaren helburuak, eta gauez, helburu horiek 1 eta 3 dezibelio artean gainditzen dira, batez ere GI-2634 errepideko trafikoagatik. Emaitza horien arabera, plan bereziaren dokumentazioak proposatzen du azpieremua babes akustiko bereziko eremu izendatzea, eta dagokion zonako plana zehaztea. Plan horretan jasoko dira ondorio horiek murrizteko neurri zuzentzaileak (errepidearen erakunde kudeatzailearekin protokoloak zehaztea abiadura mugatzeko, zoladurak aldatzeko, etab., eraikinak isolatzeko legezko irizpideak betetzea, espazio libreetan landareen pantailak jartzea, etab.) eta baita ere neurri horiek gauzatzeko arduradunak.

Plan berezia garatzearen eta ezartzearen ingurumen ondorioei dagokienez, energiaren eta materialen kontsumoak, klima aldaketarekin lotutako ondorioek (berotegi efektuko gasen emisioak eta egokitzapen neurriak) eta 15/17 etxebizitza eta horiei dagozkien zerbitzu eta zuzkiduren ezarpenarekin lotutako hondakin solido eta likidoen sorrerak aldaketak eragin ditzakete pertsonen mugikortasun ereduetan, hiri trafikoan eta horren inpaktuen larritasunean; gainera, hondakin gehiago sortzea eta hondakin uren karga kutsatzailea handitzea eragin dezakete, azken horien karga kutsatzailea ezabatzeko edo murrizteko administrazio hidraulikoak ezarri behar dituen neurriei kalterik egin gabe, URAk jakinarazi duenez.

Hala ere, etxebizitzen, zerbitzuen eta zuzkiduren kopurua, funtsean, egungo HAPOaren indarreko antolamenduan kontuan hartzen zen bera da, eta ez da esanguratsua Bidaniako hirigunearen testuinguruan. Gainera, ez dakar landa-lurzoruan bizitegi gune isolatu berri bat sortzea, baizik eta lehendik dagoen hiri bilbean integratzea, azpieremua berrerabiltzeko eta biziberritzeko helburuarekin, eta hori aukera on bat da ingurumen-hobekuntzarako. Hori guztia kontuan hartuta, espero izatekoa da hiri metabolismoari lotutako inpaktu horiek ez direla handiak izango, baldin eta ingurumen dokumentuan eta ingurumen txosten estrategiko honetan zehazten diren neurri babesle eta zuzentzaileak kontuan hartzen badira.

mente prevista y un nuevo viario local no contemplado en el PGOU (unos 45 m de longitud) que uniría Agerre Azpi kalea con la GI-2634.

El subámbito no cuenta con cursos de agua, si bien se sitúa a unos 50 m del arroyo Goiatz aproximadamente a 70 m del Ernio, por lo que toda actuación que afecte al dominio público hidráulico o se sitúe en sus zonas de protección asociadas (servidumbre y policía) requerirá de la preceptiva autorización administrativa. Por lo demás, el ámbito afectado por el plan especial no presenta características naturales relevantes, ni coincide con espacios pertenecientes a la Red Natura 2000 o a la Red de Espacios Protegidos de la CAPV, ni con ningún elemento estructural de la Red de Infraestructura Verde de la CAPV o que pudiera formar parte de una futura Red de infraestructura Verde a nivel Territorial. Tampoco se ha observado, ni se señala en el entorno, la presencia de especies animales catalogadas o amenazadas incluidas en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas o especies animales con Plan de Gestión aprobado. Asimismo, el subámbito no cuenta con recursos o actividades agrarias relevantes, ni con la presencia de bienes patrimoniales o culturales protegidos.

Respecto a los riesgos o factores limitantes al uso propuesto, al no existir cursos de aguas permanentes, el riesgo de inundabilidad es inexistente, y los riesgos sísmicos, a la vulnerabilidad a la contaminación de acuíferos es muy bajo debido a la situación en la que ya se encuentra el subámbito. Asimismo, no se han constatado suelos que soportan o hayan soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes, y los riesgos asociados al transporte de mercancías peligrosas por carreteras se ha considerado como bajo.

Por lo que se refiere al ruido, el estudio acústico incorporado concluye que se cumplen los objetivos de calidad acústica para el ruido en fachada de las edificaciones del ámbito para los periodos de día y tarde, superándose esos objetivos entre 1 y 3 decibelios para el periodo de noche debido principalmente al tráfico soportado por la GI-2634. De acuerdo con estos resultados la documentación del plan especial propone la declaración del subámbito como zona de protección acústica especial, determinando el correspondiente plan zonal en el que se relacionan las medidas correctoras para la reducción de estos efectos (determinación de protocolos con la entidad gestora de la carretera para la limitación de la velocidad, la sustitución de pavimentos, etc., cumplimiento de los criterios legales para el aislamiento de edificios, apantallamiento vegetal en los espacios libres, etc.) y los responsables de su ejecución.

En cuanto a los efectos ambientales del desarrollo e implementación del plan especial, el consumo energético y de materiales, los efectos asociados al cambio climático (las emisiones de GEIs y medidas de adaptación) y la generación de residuos sólidos y líquidos asociadas al establecimiento de 15/17 nuevas viviendas y de los servicios y dotaciones correspondientes pueden producir, respecto a la situación actual, cambios en los patrones de movilidad de personas, en el tráfico urbano y en la magnitud de sus impactos, así como un aumento en la generación de residuos y un incremento de la carga contaminante en las aguas residuales, sin menoscabo de las medidas que, parar eliminar o reducir la carga contaminantes de estas últimas, debe establecer la administración hidráulica según ha informado URA.

Sin embargo, teniendo en cuenta que el n.º de viviendas y servicios y dotaciones es básicamente el mismo que se consideraba al respecto en la ordenación vigente del actual PGOU, que ese número no es significativo en el contexto del casco urbano de Bidania y que no supone la generación de un nuevo núcleo residencial aislado sobre suelo rural, sino que se integra en la trama urbana existente con el objetivo de reutilizar y regenerar urbanísticamente el subámbito lo cual es una oportunidad para su mejora ambiental, es de esperar que dichos impactos ligados al metabolismo urbano no sean importantes si se tienen en cuenta las medidas protectoras y correctoras que se especifican en el documento ambiental y en este informe ambiental estratégico.

Bestalde, aurreikusitako hirigintza garapenak eraikinak eta urbanizazioa eraikitzeko jarduketen berezko ingurumen inpaktuak sortuko ditu –zarata sortzea, partikulak atmosferara isurtzea, sedimentuak ibilgura isurtzea, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak sortzea, etab.–. Inpaktu horiek puntualak izango dira, eta minimizatu egin daitezke, urbanizazio eta eraikuntzako obra proiektuetan prebentzio eta zuzenketa neurri egokiak hartuta.

Beraz, aurreko kontsiderazio guztiak kontuan hartuta, ondorioztatzen da 4.2 «Kalegoena» azpieremuaren hiri antolamenduko plan berezian proposatutako antolamenduak ez dakarrela ingurumen inpaktu kaltegarri nabarmenik, ez planteatutako jarduketen ezaugarriengatik, ez eragindako ingurunearen sentsibilitateagatik. Hori dela eta, ez da beharrezkotzat jotzen ingurumen ebaluazio estrategiko arrunteko prozedura xehe eta sakonago bat egitea, betiere kontuan hartzen badira, txosten honetan xedatutakoaren arabera, planean bertan eta plana garatzeko tresnetan zehaztu eta txertatu behar diren irizpide eta neurri babesleak eta ingurumen integraziokoak.

Ondorioz, aurreko guztiarekin bat etorriz, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 31. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta urriaren 20ko 16/2020 Foru Dekretuan aurreikusitakoa betez, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ingurumen txosten estrategiko hau egin du, honako hauek kontuan hartuz:

*Lehena.* Bidania-Goiatzeko 4.2 «Kalegoena» azpieremuaren hiri antolamenduko plan bereziari ingurumen ebaluazio estrategiko arruntik ez egitea. Izan ere, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen V. eranskinean ezarritako irizpideekin bat etorriz egindako azterketaren arabera, eta egindako kontsulten emaitza kontuan hartuta, ondorioztatu da ez duela eragin negatibo nabarmenik izango ingurumenean, betiere ingurumen txosten estrategiko honen bigarren atalean ezarritako baldintzak betetzen badira.

*Bigarrena.* Bidania-Goiatzeko 4.2 «Kalegoena» azpieremuaren hiri antolamenduko plan bereziak, bai eta urbanizazioari lotutako obra proiektuek eta horiek garatzen dituzten eraikuntza proiektuek ere, neurri babesle eta zuzentzaileez eta ingurumen dokumentu estrategikoan ezarritako ikuskapen planaz gain, honako neurri hauek barne hartuko dituzte:

1. Ingurumen dokumentu estrategikoa (IDE): Ingurumen Dokumentu Estrategikoa osatu eta zehazteko orduan, hobeto egokitu behar dira irizpide eta neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumen integraziokoak eta dagokion jarraipen programa azpieremuaren berariazko eskakizunetara, betiere kontuan hartuta ingurumen txosten estrategiko honen hurrengo epigrafean zehaztutakoa.

2. Ingurumen dokumentu estrategikoa hirigintza arauetan txertatzea: Ingurumen dokumentu estrategikoa osatu eta egokitu ondoren, plan berezia osatzen duten dokumentuen artean sartuko da, eta adierazi behar da ingurumen dokumentu estrategikoan jasotako neurri babesleak, zuzentzaileak eta ingurumen integraziokoak, bai eta ingurumen jarraipeneko programa ere, arauzkoak izango direla eta nahitaez bete beharko direla.

Ingurumen izaerako zehaztapen horiek berariaz txertatu beharko dira plan berezia garatzeko hirigintza arau partikularrei dagokien atalean, zuzenean erlazionatuz edo ingurumen dokumentu estrategikoak horri buruz jaso behar duena igorriz; izan ere, horrela, plan berezia garatzeko tresnetan ere kontuan hartu ahal izango dira (urbanizazio obren proiektua eta eraikuntza proiektuak). Proiektu horietan nahitaez ezarri beharko da aurrekontu bat, bi ataletan zehaztutakoa abian jarriko dela ziurtatzeko, baita horiek gauzatzeko arduradunak zein izango diren ezartzeko ere.

Por otra parte, el desarrollo urbanístico previsto generará los impactos ambientales propios de las actuaciones de construcción de los edificios y de la urbanización –generación de ruido, emisión de partículas a la atmosfera, vertido de sedimentos a los cauces, producción de residuos de construcción y demolición, etc.– que tendrán un carácter puntual y pueden ser minimizados mediante la adopción de las oportunas medidas preventivas y correctoras en los proyectos de obras de urbanización y de construcción.

Por tanto, teniendo en cuenta el conjunto de las consideraciones anteriores, se concluye que la ordenación propuesta en el plan especial de ordenación urbana del subámbito 4.2 «Kalegoena» no implica impactos ambientales adversos significativos, ni por las características de las actuaciones planteadas, ni por la sensibilidad del medio afectado, por lo que no se considera necesario efectuar un procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria con mayor grado de detalle y profundidad, siempre y cuando se tengan en cuenta de acuerdo con lo dispuesto en este informe, los criterios y medidas protectoras y de integración ambiental que deben de detallarse e incorporarse en el propio plan y en los instrumentos de desarrollo del mismo.

En consecuencia, de acuerdo con todo lo anterior y según lo dispuesto en el artículo 31 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental y, en virtud de lo previsto en el del Decreto Foral 16/2020, de 20 de octubre, esta Dirección General emite el presente Informe Ambiental Estratégico en los términos siguientes:

*Primero.* No someter el plan especial de ordenación urbana del subámbito 4.2 «Kalegoena» en Bidania-Goiatz, a evaluación ambiental estratégica ordinaria ya que, de acuerdo con el análisis efectuado de conformidad con los criterios establecidos en el anexo V de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, y teniendo en cuenta el resultado de las consultas realizadas, se concluye que no va a producir efectos negativos significativos sobre el medio ambiente, siempre que se cumplan los términos que se establecen en el apartado segundo de este informe ambiental estratégico.

*Segundo.* El plan especial de ordenación urbana del subámbito 4.2 «Kalegoena» en Bidania-Goiatz así como los proyectos de obra asociados a la urbanización y los proyectos de edificación que los desarrollen incorporarán, además de las medidas protectoras y correctoras y el plan de supervisión establecidos en el documento ambiental estratégico, las siguientes medidas:

1. Documento Ambiental Estratégico (DAE): El Documento Ambiental Estratégico deberá de completarse y detallar de forma más adaptada a los requerimientos específicos del subámbito, los criterios y medidas protectoras, correctoras y de integración ambiental y el programa de seguimiento correspondiente, teniendo en cuenta para ello lo especificado en el siguiente epígrafe de este informe ambiental estratégico.

2. Incorporación del DAE a las Normas Urbanísticas: Una vez completado y adaptado el documento ambiental estratégico, este se incluirá entre los documentos constitutivos que conforman el plan especial, debiéndose mencionar que las medidas protectoras, correctoras y de integración ambiental, así como el programa de seguimiento ambiental recogidos en los apartados correspondientes del documento ambiental estratégico tendrán carácter normativo y serán de obligado cumplimiento.

Estas determinaciones de carácter ambiental deberán integrarse específicamente en el apartado correspondiente a las normas urbanísticas particulares de desarrollo del plan especial, ya sea relacionándolas de forma directa, o a través de su remisión a lo que al respecto debe de recoger el documento ambiental estratégico, de modo que permitan que se tengan en cuenta asimismo en los instrumentos de desarrollo del plan especial (proyecto de obras de urbanización y proyectos de edificación y construcción). Se especificará la obligación de incluir en dichos proyectos un presupuesto que asegure la puesta en marcha de las determinaciones de ambos apartados y de establecer los responsables para su ejecución.


EK\CV GAO-I-2021-05701

Ildo horretan, besteak beste, irizpide eta neurri hauek hartuko dira kontuan:

a) Jasangarritasun energetikoa: Urbanizazio eta eraikuntzako obren proiektuek jasangarritasun energetikoko irizpideak eta neurriak jasoko dituzte, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak eta hura garatzeko dekretuak ezarritako betebeharrak betez. Eraikinak diseinatzerakoan bilatuko da ahalik eta efizientzia energetiko handiena izatea, eta energia berriztagarriak aprobetxatzea. Ahal den neurrian, ia energia kontsumorik ez duten eraikinak lortzen saiatuko gara, eraikinen energia efizientziari buruzko 2010/31/EB Europako Zuzentarauan zehazten diren bezala. Era berean, argiteria publikoan ahalik eta aurrezpen eta eraginkortasun handiena bilatuko da.

Otsailaren 21eko 4/2019 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, hiri inguruneetan erabilera publikoko karga estazioak aurreikusi beharko dira, ibilgailu elektrikoak eta ordezko erregaiek bultzatutakoak erabiltzen dituzten pertsonei energia hornidura bermatzeko, eta baita bizikleten erabilera eta aparkalekua errazteko espazioak ere. Gainera, etxebizitzetarako eraikin berriak otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 43. artikuluak energia eraginkortasunari buruz ezartzen dituen betebeharren mende egongo dira:

1. Eraikiko diren bizitegi eraikin berrietan, betiere energia ziurtagiriaren pean badaude, araudiz zehazten diren gutxieneko kalifikazioko irizpideak aplikatuko zaizkie.

2. Eraikigarritasun gutxieneko bat gainditzen duten hirigintza garapen berriek bero sistemen energia horniketako sistema zentralizatuak aurreikusi beharko dituzte, lehentasunez iturri berriztagarriak dituztenak, betiere sistema hori teknikoki eta ekonomikoki arrazoizkoa bada.

3. Aparkaleku komunitarioetan, ibilgailu elektrikoentzako karga puntuen aurre sistemak jarriko dira, eta bizikletak erabiltzeko eta aparkatzeko guneak, araudiz zehazten direnak.

Urbanizazio eta eraikuntzako proiektuetan aplikatu beharreko jasangarritasun energetikoko neurririk onenak identifikatze aldera, komenigarria da plan bereziak jasangarritasun energetikoari buruzko azterketa bat izatea. Azterketa horrek EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 7.2 artikuluan adierazitako alderdi hauek bilduko ditu:

1. Jasangarritasun energetikoetara egokitu beharraren ebaluazioa.

2. Eraikin eta azpiegituretan energia berriztagarrien ezarpenaren ebaluazioa.

3. Mugikortasun azterketa, energia kontsumoaren ondorioetarako, garraio pribatuaren alternatibak eta motorrik gabeko mugikortasuna sustatzeko eta ez-mugikortasuna sustatzeko politikak barne.

4. Kanpoko argiteria publikoaren azterketa, hartara ebaluatzeko zein diren argiztapen maila eta denbora egokienak espazio publiko bakoitzerako.

b) Ingurumenaren, paisaiaren eta klima aldaketaren integrazioa: Plan bereziaren araudiak zehaztuko du zer neurri eta jardunbide egoki txertatu behar diren urbanizazio eta eraikuntzako obren proiektuetan, bermatzeko egokitzen direla ingurumen jasangarritasunaren, paisaia-integrazioaren eta klima aldaketa arintzearen eta klima aldaketara egokitzearen irizpideetara, eta hau lortzeko:

1. Berriztagarriak ez diren lehengaien kontsumoa murriztea eraikuntzan eta eraikingintzan.

2. Eraginkortasuna bilatzea uraren erabileran eta hornidura eta saneamendu sistemetan.

3. Eraikinen paisaia-integrazioa (baimendutako gehieneko altuerak, materialak, kromatismoa, etab. kontrolatzea) eta az-

En este sentido, entre otras, se tendrán en cuenta además los siguientes criterios y medidas:

a) Sostenibilidad energética: Los proyectos de obra de urbanización y de edificación incorporarán criterios y medidas de sostenibilidad energética, cumpliendo, en cualquier caso, con las obligaciones que establece la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca y su decreto de desarrollo. Los edificios se diseñarán buscando la máxima eficiencia energética y el aprovechamiento de energías renovables. En la medida de lo posible se tratará de lograr edificios de «consumo energético casi nulo», tal y como se definen en la Directiva europea 2010/31/UE, de eficiencia energética de los edificios. Así mismo, se buscará el máximo ahorro y eficiencia en el alumbrado público.

En coherencia con lo estipulado en la Ley 4/2019, de 21 de febrero, se deberán prever estaciones de recarga de uso público en los entornos urbanos para garantizar el suministro de energía a las personas usuarias de vehículos eléctricos y propulsados por combustibles alternativos, así como espacios para facilitar el uso y el aparcamiento de bicicletas. Además, los edificios nuevos destinados a vivienda quedaran sujetos a las obligaciones que, respecto a la eficiencia energética, establece el artículo 43 de la Ley 4/2019, de 21 de febrero:

1. En los nuevos edificios residenciales que se vayan a construir, siempre que estos estén sometidos a certificación energética, se aplicarán los criterios de calificación mínima que se determinen reglamentariamente.

2. Los nuevos desarrollos urbanísticos que superen un mínimo de edificabilidad física deberán prever sistemas centralizados de suministro energético de sistemas de calor, preferentemente a partir de fuentes renovables, siempre que ello fuera técnica y económicamente razonable.

3. Equipar con pre sistemas de puntos de recarga de vehículo eléctrico los aparcamientos comunitarios, y de espacios para facilitar el uso y el aparcamiento de bicicletas, que reglamentariamente se determinen.

A efectos de identificar las mejores medidas de sostenibilidad energética a aplicar en los proyectos de urbanización y edificación, es conveniente que el plan especial cuente con un estudio de sostenibilidad energética que incluya los siguientes aspectos señalados el artículo 7.2. de la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la CAPV:

1. Evaluación de la adaptación a las exigencias de sostenibilidad energética.

2. Evaluación de la implantación de energías renovables en los edificios y las infraestructuras.

3. Estudio de movilidad, a los efectos del consumo energético, incluyendo alternativas al uso del transporte privado y políticas de impulso de la movilidad no motorizada y la no movilidad.

4. Estudio del alumbrado público exterior, a los efectos de evaluar los niveles y tiempos de iluminación óptimos para cada espacio público.

b) Integración ambiental, paisajística y del cambio climático: La normativa del plan especial determinará las medidas y buenas prácticas que deban integrarse en los proyectos de obras de urbanización, construcción y edificación para garantizar su adecuación a criterios de sostenibilidad ambiental, integración paisajística y de mitigación y adaptación al cambio climático, y lograr:

1. La reducción del consumo de materias primas no renovables en la construcción y edificación.

2. La eficiencia en el uso del agua y de los sistemas de abastecimiento y saneamiento.

3. La integración paisajística de las edificaciones (contención en las alturas máximas permitidas, materiales, cromatis-

pieremuko espazio libreen birnaturalizazioa gauzatzea, naturan oinarritutako irtenbideak bilatuz, hala nola hiri parkeak, zoladura iragazkorrak, orubeen zaharberritzea, fatxada berdeak, etab.

4. Lorategiak eta berdeguneak diseinatzea eta kudeatzea, jasangarritasun irizpideen arabera.

Urbanizazio eta eraikuntzako proiektuetan txertatu beharreko neurriak eta jardunbide egokiak definitzeko, honako argitalpen hauetan deskribatutakoak hartuko dira kontuan:

— «Eraikuntza eta birgaitze jasangarriaren gida EAEko etxebizitzetarako» (IHOBE).

— «Irtenbide naturalak EAEko toki esparruan klima adaketara egokitzeko» (IHOBE).

— «Klima aldaketaren ondorioak baloratzeko eta Gipuzkoako hirigintza-plangintzan sartzeko tresna»: Kokapen metodologikoa dokumentuko 4.2 eta 5.3 atalak (GFA).

— «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua» (Udalsarea 21).

c) Uren babesa: URAk informatutakoaren arabera, plan bereziaren dokumentazioan berariaz jaso beharko da etorkizunean azpieremuko isurketak eta garatzen ari den saneamendu eta arazketa soluzioa lotzeko baldintza. Arroko erakundeak edo administrazio hidraulikoak erabakiko du, hala badagokio, bizitegi garapena nola gauzatu, aurreikusitako saneamendu soluzioa amaitu arte. Nolanahi ere, plan bereziaren dokumentazioan, azpieremu osoko saneamendu sarearen definizioa jaso beharko da, beste zerbitzu batzuei dagozkienez gain (hornidura, argiztapena eta elektrizitatea, telekomunikazioak, etab.). Ibilguen zortasun eta zaintza eremuan edozein obra edo lan egiteko, arroko erakundeari administrazio baimena eskatu beharko zaio aldez aurretik.

d) Hondeaketako lurrak eta eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko neurriak: Urbanizazio eta eraikuntzako proiektuek hondakinak kudeatzeko azterlan bat izan beharko dute, eta Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean, eta Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta Kudeaketa arautzen duen uztailaren 26ko 112/2012 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera kudeatuko dira. Neurri orokor gisa, balorazio tekniko eta ekonomikoaren ikuspegitik bideragarriak diren hondakin guztiak balorizatzaile baimendu bati igorri beharko zaizkio. Hondeaketatik datozen soberako lurren kasuan, ahalik eta lur kopuru handiena balorizatzeko ahalegina egin beharko da, betelanak eginez edo ingurumena lehengoratuz, 2008/98/EE Zuzentaraua aldatzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/851 (EB) Zuzentarauan definitzen den bezala. Zuzentarau horrek xedatzen duenez (6.17 bis artikulua), betelana balorizazio eragiketatzat hartzeko, betelanerako erabilitako hondakinek hondakin ez diren materialak ordezkatu behar dituzte, lursailak birsortzeko egokiak izan behar dute eta helburu horiek lortzeko behar-beharrezkoa den kantitatera mugatuta egon behar dute. Nolanahi ere, obrak lur gehiago betetzea eskatzen badu, betelan horiek proiektuaren gainerakoarekin batera onartu beharko dira, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

e) Eraikuntza faserako neurriak: Aurreko puntuetan adierazitako alderdiez gain, hirigintza arauen bitartez, plan bereziak zehaztuko ditu plana garatzen duten urbanizazio eta eraikuntzako obren proiektuetan sartu beharreko neurri zuzentzaileak, ingurumen inpaktuak eta eraikuntza-fasean sortutako eragozpenak murrizteko. Neurri horien helburua izango da, besteak beste:

mo, etc.) y la renaturalización de espacios libres del subámbito, buscando soluciones basadas en la naturaleza, como parques urbanos, pavimentos permeables, restauración de solares, fachadas verdes, etc.

4. El diseño y gestión de jardines y espacios verdes con criterios de sostenibilidad.

Para la definición de las medidas y buenas prácticas a incorporar a los proyectos urbanización y edificación, se considerarán las descritas en las siguientes publicaciones:

— «Guía de Edificación sostenible para la vivienda en la CAPV» (IHOBE).

— «Soluciones Naturales para la adaptación al cambio climático en el ámbito local de la CAPV» (IHOBE).

— «Herramienta para la valoración e integración de los efectos del cambio climático en el planeamiento urbanístico de Gipuzkoa»: apartados 4.2 y 5.3 del documento Encuadre metodológico (DFG).

— «Manual para el diseño de jardines y zonas verdes sostenibles» (Udalsarea 21.).

c) Protección de las aguas: De acuerdo con lo informado por URA, la documentación del plan especial deberá recoger expresamente la condición de conexión de los vertidos del subámbito a la futura solución de saneamiento y depuración que se está desarrollando. Será el organismo de cuenca o la administración hidráulica quien determine la forma en que, en su caso, puede ejecutarse el desarrollo residencial en tanto en cuanto no esté concluida la solución de saneamiento prevista. En todo caso, la documentación del plan especial, además de la correspondiente a otros servicios (abastecimiento, iluminación y electricidad, telecomunicaciones, etc.), deberá contemplar la definición de la red de saneamiento de todo el subámbito. Para la ejecución de cualquier obra o trabajo sobre la zona de servidumbre y policía de cauces se solicitará autorización administrativa previa del organismo de cuenca.

d) Medidas para la gestión de tierras de excavación y residuos de construcción y demolición: Los proyectos de urbanización y edificación deberán contar con un estudio de gestión de residuos, que se gestionarán de acuerdo con lo previsto en la Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados y el Decreto 112/2012, de 26 de julio, por el que se regula la producción y gestión de residuos de construcción y demolición. Como medida general, todos los residuos cuya valorización resulte técnica y económicamente viable deberán ser remitidos a valorizador debidamente autorizado. En el caso de las tierras sobrantes procedentes de la excavación, se deberá tratar de valorizar la mayor cantidad posible de los mismos mediante operaciones de relleno o de restauración ambiental, tal y como se define en la Directiva (UE) 2018/851 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 30 de mayo de 2018, por la que se modifica la Directiva 2008/98/CE. Según establece dicha Directiva (artículo 6.17 bis), para que el relleno se considere una operación de valorización, los residuos empleados para relleno deben sustituir a materiales que no sean residuos, ser aptos para la regeneración de terrenos y estar limitados a la cantidad estrictamente necesaria para lograr dichos fines. En cualquier caso, si la obra requiere el establecimiento de nuevos rellenos de tierras, estos deberán ser aprobados conjuntamente con el resto del proyecto, de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 49/2009, de 24 de febrero.

e) Medidas para la fase de construcción: Además de los aspectos señalados en los puntos anteriores, el plan especial concretará, asimismo, a través de sus normas urbanísticas, las medidas correctoras que se deben incorporar a los proyectos de obras de urbanización y construcción y edificación que desarrollen el plan especial para minimizar los impactos ambientales y las molestias ocasionadas en la fase de construcción. Entre dichas medidas se deben encontrar las tendentes a:

EK\CV GAO-I-2021-05701

1. Substantzia solido edo likido kutsatzailerik ez isurtzea. Makinak uzteko, ibilgailuak garbitzeko eta, oro har, instalazio laguntzaileak jartzeko erabiliko diren eremuak hidraulikoki isolatzea ibilguetatik.

2. Mugitutako lurrak, landarerik gabeak, landare espezie exotiko inbaditzaileak sartzeko edo zabaltzeko bidea izan ez daitezen hartu beharreko kontrol neurriak ezartzea, baita zaintza programak ere, eta, dagokionean, landare horiek kentzea.

3. Proiektua gauzatu bitartean, obretako eremuak eta haiek eragindako ingurua (makineria parkeak, makineriaren pasabide eremuak, sarbide eremuak) garbiketa baldintza onenetan mantentzea. Obrak amaitzen direnean, garbiketa kanpaina zorrotza egitea, eta proiektuaren eraginpeko eremuak batere hondakinik gabe geratzea.

4. Ingurumen zaintzarako eta jarraipenerako programa bat izatea, aurrekontu espezifiko batekin. Programa hori proiektuan txertatuko da.

5. Obrek dirauten bitartean soinu eragozpenak saihestea. Lanak egiteko erabiliko diren makina eta ibilgailuen soinu emisioak bete beharko ditu 212/2002 Errege Dekretuak, otsailaren 22koak, zenbait makina aire librean erabiltzean sortzen diren soinu igorpenak arautzen dituenak, zehaztutako mugak.

*Hirugarrena.* 21/2013 Legearen 31.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen txosten estrategiko honek indarraldia galduko du eta dagozkion ondorioak sortzeari utziko dio, baldin eta plana ez bada onartzen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta gehienez ere lau urteko epean.

*Laugarrena.* Agindua ematea ingurumen txosten estrategiko hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta zuzendaritza honen web orrian argitaratzeko.

Donostia, 2021eko abuztuaren 20a.—Mónica Pedreira Lanchas, Ingurumeneko zuzendari nagusia. (5701)

1. Evitar cualquier vertido o derrame de sólidos o líquidos contaminantes. Las áreas destinadas a parques de maquinaria, limpieza de vehículos y, en general, las instalaciones auxiliares, se aislarán hidráulicamente de los cauces.

2. Adoptar medidas de control para evitar que los terrenos removidos y desprovistos de vegetación constituyan una vía de entrada o expansión para especie vegetales exóticas invasoras, incluyendo programas de vigilancia y, en su caso, erradicación.

3. Mantener, durante la ejecución del proyecto, las zonas propias de las obras así como su entorno afectado (parques de maquinaria, zonas de paso de maquinaria, áreas de acceso) en las mejores condiciones de limpieza. Una vez finalizadas las obras, se llevará a cabo una rigurosa campaña de limpieza, debiendo quedar el área de influencia del proyecto totalmente limpia de restos.

4. Contar con un Programa de vigilancia y seguimiento ambiental, con un presupuesto específico que deberá ser incorporado al proyecto.

5. Evitar molestias sonoras durante el desarrollo de las obras. La emisión sonora de la maquinaria y vehículos usados en la ejecución de las obras cumplirá lo establecido por el Real Decreto 212/2002, de 22 de febrero, por el que se regulan las emisiones sonoras en el entorno debidas a determinadas máquinas de uso al aire libre.

*Tercero.* De acuerdo a lo establecido en el artículo 31.4 de la Ley 21/2013, el presente informe ambiental estratégico perderá su vigencia y cesará en la producción de los efectos que le son propios si, una vez publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, no se hubiera procedido a la aprobación del Plan en el plazo máximo de cuatro años desde su publicación.

*Cuarto.* Ordenar la publicación del presente informe ambiental estratégico en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web de esta Dirección.

San Sebastián, a 20 de agosto de 2021.—La directora general de Medio Ambiente, Mónica Pedreira Lanchas. (5701)

EK\CV GAO-I-2021-05701